

Buletineko gaiak:

1. Zuzendaritzaren oharra
2. Xanistebanetako eta madalenetako txosnak
3. Jantokia 2022-2023
4. Garraioa 2022-2023
 - Eskolaz kanpoko ekintzen oharra
 - Apartekoak

Berri orokorrak

1. Zuzendaritzaren oharra

Ikasturte honetako azken buletina duzue hau eta bihotz-bihotzez,

**opor garai lasai eta zoriontsua pasa
dezazuen desiratzen dizuegu.**

Uda ona izan dezazuela!

Jakin beharrekoa:

- HH, LH eta DBHko ikasle guztiek irailaren 12an hasiko dute ikasturte berria.
- Goizeko zaintza zerbitzua ere, HH3tik LH6 bitartekoentzat, irailaren 12an hasiko da:
 - ✓ **07:30-09:00.**
 - ✓ Zaintza gela HH5 eremuan egongo da.
- ORDUTEGIAK:
 - ✓ **HHn** (sarrerako ordutegia malgua)
 - Irailak 12-16: 09:00-12:00.
 - Irailaren 19tik aurrera: 09:00-12:00 eta 14:30-16:30.
 - ✓ **LHn**
 - Irailak 12-16: 08:30-12:00.

Temas del boletín:

1. Nota de la dirección
2. Txosnas de xanistebanes y madalens
3. Comedor 2022-2023
4. Autobús 2022-2023
 - Actividades extraescolares
 - Otros temas

Temas generales

1. Nota de la dirección

Este es el último boletín de este curso y de todo corazón,

***os deseamos unas tranquilas y felices
vacaciones.***

Uda ona izan dezazuela!

Recordad:

- *Los alumnos-as de HH, LH y DBH comenzarán el nuevo curso el 12 de septiembre.*
 - *El servicio de custodia de mañanas comenzará el 12 de septiembre:*
 - **07:30-09:00.**
 - *Gela: en la zona de HH5.*
 - **HORARIO:**
 - **HH** (el horario de entrada será flexible)
 - 12-16 septiembre: 09:00-12:00.
 - A partir del 19 de septiembre: 09:00-12:00 y 14:30-16:30.
 - **LH**
 - 12-16 septiembre: 08:30-12:00.



- Irailaren 19tik aurrera: 08:30-12:00 eta 14:30-16:30

✓ **DBHn:** ikasturtea hasi baino lehen jakinaraziko dizuegu.

OHARRA: Idazkaritza uztailaren 19a arte goizez irekia egongo da.

2. Xanistebanetako eta madalenetako txosnetarako

Mila esker izena eman duzue! **Zuek gabe ezinezkoa litzateke gure proiektuak aurrera jarraitzea!** Hala ere, gogorazi nahi dizuegu oraindik txanda batzuk bete gabe daudela xanistebanetarako: **ABUZTUAK 3, 4 eta 6. Idazkaritzara dei dezakezue** izena emateko.

OHARRA: gogoratu izena eman duzuen egunean eta orduan dagokion tokira agertu beharko duzuela zuzenean (Errenteria-Oreretako txosnara edo Oiartzungora).

3. 2022-23 ikasturteko JAN-TOKIra izen-ematea

Datorren ikasturterako jantokiko izen-emate epea **abuztuaren 29tik irailaren 2a** bitartean irekiko dugu. **Arretaz irakurri, mesedez, jarraibideak.**

Ikasleak jantokia erabiliko badu soilik bete inprimakia, ziurra ez den kasuetan aurrerago egin dezakezue idazkaritzan. Eskolaz kanpoko ekintzak direla eta jantokiko egunak ez badakizkizue, inprimakia ez bete. Aurrerago adierazi ditzakezue idazkaritzan ohiko bideetatik.

- *A partir del 19 de septiembre: 08:30-12:00 y 14:30-16:30.*

- **DBH:** *os informaremos antes de que comience el curso.*

AVISO: *Para cualquier consulta, secretaría estará abierta hasta el 19 de julio de mañanas.*

2. Para las txosnas de xanistebanes y madalenas

¡Gracias a los y las que os habéis apuntado! ¡Sin vosotros-as sería imposible que nuestro proyecto siguiera adelante! De todos modos, queremos recordaros que hay algunos turnos sin completar: los días 3, 4 y 6 de AGOSTO. Podéis llamar a secretaría para apuntaros.

NOTA: *recordad que el día y hora en los que os habéis apuntado debéis acudir directamente a la txosna de Errenteria o a la de Oiartzun.*

3. Inscripciones para el COMEDOR 2022-2023

*Para el próximo curso hemos abierto el plazo de inscripción en el comedor: **del 29 de agosto al 2 de septiembre.** Leed atentamente, por favor, las instrucciones.*

Si el alumno-a va a utilizar el comedor rellena el formulario, en caso de que no sea seguro podéis hacerlo más adelante en secretaría. Si por actividades extraescolares no sabéis los días, no rellenéis el impreso. Podéis indicarlo más adelante en la secretaría, por los cauces habituales.



- **HH eta LHri** dagokionez, INPRIMAKI BEREAN ZEHAZTU BEHARKO DUZUE:

1. **IRAILEKO EGUN ERDIETAKO**

erabilera, irailaren 12tik 16ra.

2. **EGUN OSOZ** hasten direnekoa, irailaren 19tik aurrerakoa.

- HH eta LHko inprimakia:

<https://forms.gle/57rnXogqo5w74c7R9>

- **DBHri** dagokionez, INPRIMAKI BEREAN ZEHAZTU BEHARKO DUZUE:

1. **IRAILEKO EGUN MURRIZTUETAKO**

erabilera, irailaren 12tik 16ra. Adi! Egun horietan 13:10-14:00era zaintza zerbitzua izango dute ikasle hauek.

2. **EGUN OSOZ** hasten direnean, irailaren 19tik aurrerakoa.

- DBHko inprimakia:

<https://forms.gle/akdqEmC5X98YfN6P9>

4. 2022-23 ikasturteko GARRAIOrako izen-ematea

Orain arteko erabiltzaileek **ez dute izena eman behar**, automatikoki erabiltzaile izaten jarraituko dute.

BAJA EMAN edo ALTA BERRIA egin nahi duenak idazkaritzan adierazi behar du ekainaren 24a bitartean.

- *En cuanto a HH y LH, DEBERÉIS DETALLAR EN EL MISMO IMPRESO:*

1. *Uso EN LOS MEDIOS DÍAS DE SEPTIEMBRE, del 12 al 16.*

2. *Desde el 19 de septiembre, fecha de inicio del HORARIO COMPLETO.*

- *Impreso de HH y LH:*

<https://forms.gle/57rnXogqo5w74c7R9>

- *Respecto a la ESO, DEBERÉIS DETALLAR EN EL mismo IMPRESO:*

1. *Uso EN LOS MEDIOS DÍAS DE SEPTIEMBRE, del 12 al 16. ¡Atención! Estos días entre las 13:10 y las 14:00 habrá servicio de custodia.*

2. *A partir del 19 de septiembre, cuando comiencen EL DÍA COMPLETO.*

- *Impreso de la ESO:*

<https://forms.gle/akdqEmC5X98YfN6P9>

4. Servicio de AUTOBÚS para el curso 2022-2023

Los usuarios y usuarias del transporte de este curso escolar, **no deberán realizar ninguna inscripción**, la renovaremos automáticamente.

En el caso de querer DARSE DE BAJA o NUEVA ALTA debéis indicarlo en secretaría **antes del 24 de junio**.

Eskolaz kanpoko oharrak

1. Eskola Kiroleko ikasturteko azken buletina

Atxikita duzue Oarsoaldeko Eskola Kiroleko ikasturteko azkeneko buletina.

2. Eskolaz kanpoko ekintzen izen-ematea: ekainak 24 arte

Eskolaz kanpoko ekintzen izen-emateak jasotzen ari gara. Gogoratu **ekainaren 24era arte** irekita egongo dela eta irailean berriz irekiko dugula, inork aldaketarik egin nahiko balu. **Irailean jakinaraziko dugu taldeak osatuak dauden ala ez.**

3. Haurtzaro Dantza Taldearen emanaldiak, udan

Gogoratu Haurtzaro Dantza Taldeak udan izango diren **auzotako jaietan eta Xanistebanetan** parte hartuko duela.

Dantzarietara eta familietara jakinaraziko dizuegu ohiko bidetik.

Actividades extraescolares

1. Último boletín del curso de Eskola Kirola (Deporte Escolar)

Adjuntamos el último boletín del curso de Eskola Kirola (Deporte Escolar) de Oarsoaldea.

2. Inscripción en actividades extraescolares: hasta el día 24

Estamos recogiendo las inscripciones de actividades extraescolares. Recordad que la inscripción estará abierta **hasta el 24 de junio** y que volveremos a abrirla en septiembre, por si alguien quisiera hacer cambios. **En septiembre comunicaremos si los grupos están formados o no.**

3. Actuaciones de Haurtzaro Dantza Taldea en verano

Recordad que Haurtzaro Dantza Taldea participará **en las fiestas de los barrios que tendrán lugar en verano y en los Xanistebanes.**

Os informaremos a los y las dantzaris y a las familias por la vía habitual.

Apartekoak

1. Xanistebanetako danborradako entseguak

- **Gaztetxoen danborrada:**
 - LH1. mailatik gora
 - **Uztailaren 5ean** hasiko dira entseguak
 - 18:30ean ikastolako jangelako areto nagusian
- **Helduen danborrada:**
 - DBH4. mailatik gora
 - **Uztailaren 14an** hasiko dira entseguak
 - 20:00etan ikastolako frontoian

2. 'Oiartzungo erraldoien ipuina': bideoklip grabaketa

Datorren **ostegunean, hilaren 23an arratsaldeko 17:00etan Oiartzungo erraldoien ipuina**-ren aurkezpena izango da, Doneztebe plazan.

Bertan herriko erraldoiak izango dira eta musikaren eta dantzaren laguntzaz **bideoklip bat grabatuko** dugu **herriko haurrekin**.

Hori dela eta, gonbidatuta zaudete bertara etortzera eta parte hartzera. Zuen laguntza eskertuko dugu. Mila esker!

3. AEK-ren udako eta datorren ikasturteko eskaintza

AEK-ren udako eta datorren ikasturteko eskaintza bidaltzen dizuegu. **Atxikita duzue**.

Otros temas

1. Ensayos de la tamborrada de xanistebanes

- **Tamborrada juvenil:**
 - A partir de LH1
 - Los ensayos comenzarán **el 5 de julio**
 - A las 18:30 en el salón principal del comedor de la ikastola
- **Tamborrada de adultos:**
 - A partir de 4º de la ESO
 - Los ensayos comenzarán **el 14 de julio**
 - A las 20:00 en el frontón de la ikastola

2. 'Cuento de los gigantes de Oiartzun': grabación videoclip

El próximo **jueves día 23 a las 17:00** tendrá lugar la presentación del **'Cuento de los gigantes de Oiartzun'**, en la plaza Doneztebe.

Allí estarán los gigantes del pueblo y con la ayuda de la música y la danza **grabaremos un videoclip con los niños y niñas del pueblo**.

Por ello, estáis invitados-as a asistir y participar. Agradeceremos vuestra colaboración. ¡Gracias!

3. Oferta de verano y del próximo curso de AEK

Os enviamos la oferta de verano y del próximo curso de AEK. **La tenéis adjunta**.

4. Euskaraldia antolatzen hasteko bilera

Kaixo lagun!

Mezu honen bidez Euskaraldiaren 3. edizioa antolatzen hasteko bilera irekia deitu dugula jakinarazi nahi dizugu. Datorren **ostegunean, ekainaren 23an, arratsaldeko 17:00etan Fermiñene etxeko beheko solairuan (turismo bulegoan)** izango da bilera.

Etorri ezin baduzu, baina **beste modu batera ekarpena egiteko prest** bazaude, bete jarraian dagoen formularioa eta zurekin harremanetan jarriko gara:
<https://forms.gle/byjQGfzzSm6hQCNa6>

**Mila esker eta laster arte!
Oiartzungo Euskaraldia**

4. Reunión para empezar a organizar Euskaraldia

iHola amigos-as!

Mediante este mensaje os comunicamos que hemos convocado una reunión abierta para comenzar a organizar la 3ª edición de Euskaraldia. El próximo jueves, 23 de junio, la reunión tendrá lugar a las 17:00 en la planta baja (oficina de turismo) de la casa Fermiñene.

Si no puedes venir, pero estás dispuesto-a a aportar de otra manera, rellena el siguiente formulario y nos pondremos en contacto contigo:
<https://forms.gle/byjQGfzzSm6hQCNa6>

*iMuchas gracias y hasta pronto!
Oiartzungo Euskaraldia*

